



AHTren Aurkako pegatinada hauteskunde kanpainan / Pegatinada anti TAV en la campaña electoral

MUGITU MUGIMENDUA :: 22/05/2019

[Euskara/Castellano]

[Euskara]

AHTren AURKAKO PEGATINADA HAUTESKUNDE KANPAINAN

Mugitu!-k hauteskunde kanpaina honetan zehar tamaina handiko ehunka pegatina jarri ditu Nafarroan AHT sustatzen duten alderdien (Geroa Bai, Navarra Suma eta PSOE-PSN) publizitate euskarrietan (kartelak, markesinak, hiribusak, e.a.).

Pegatinak bi motakoak ziren: lehenbizikoak alderdi hauei azpiegitura honen eraikuntzak dakarkien negozioa nabarmentzen zuen era komiko batean. Gogora ekarri behar dugu ADIFeko makina bat goi kargu eta adjudikazio enpresetako hainbat ejekutibo nahiz politiko azpiegitura honen eraikuntzarekin erlazionaturiko ustelkeria praktikekin inputaturik daudela. Bestaldetik, Europako Kontu Auzitegiak hainbat lanetan inolako justifikaziorik ez duten desbiderapen eskandalagarriak salatu zituen. Alderdi hauetako politikariak “mordida” ederrekin onuradunak izan dira beraien enpresa lagunei esleipen iruzurtiak egiterakoan.

Bigarren pegatina, Geroa Bai-ri zuzendua, beraien hautagaien aurpegietara zuzenduriko tartakada bat da AHT sustatuz aldaketaren alde egotea ezinezkoa dela gogoraraziz koalizio honi. Azpiegitura hau besteak beste, lurraren suntsiketan, balidabide material eta energetikoen xahuketan, lan baldintzen prekarizazioan, murrizketa politiken larriagotzean eta betiko trenaren bazterketan oinarrituriko eredu bat da, eta beraz, ezinezkoa da azpiegitura hau sustatzea eta era berean aldaketa politiko bat babestea, aldaketa hau txikia izanagatik.

Hauteskunde hauetan, ibozka bat bera ere ez AHTrendako!

¡AHT desobeditu!

MUGITU! MUGIMENDUA

<http://mugitu.blogspot.com/>

[Castellano]

Pegatinada anti TAV en la campaña electoral

Mugitu! ha realizado una acción a lo largo de esta campaña electoral consistente en la

colocación de cientos de pegatinas de gran tamaño en los soportes publicitarios (carteles, marquesinas, autobuses urbanos, etc.) de los partidos políticos que impulsan el TAV en Navarra (Geroa Bai, Navarra suma y PSOE-PSN).

Las pegatinas eran de dos tipos: la primera hace incapié de una manera cómica en el negocio que reporta a dichos partidos la construcción de esta infraestructura. Hay que recordar que hay decenas de altos cargos de ADIF, ejecutivos de empresas adjudicatarias de diferentes tramos y políticos imputados en prácticas corruptas relacionadas con la construcción de dicha infraestructura. Por otra parte, El Tribunal de Cuentas Europeo presupuestarias escandalosas en muchas obras sin ningún tipo de justificación. Los políticos de dichos partidos se ven beneficiados mediante suculentas "mordidas" a la hora de las adjudicaciones fraudulentas a sus empresas amigas.

La segunda pegatina, destinada a Geroa Bai, es un tartazo en la cara de sus candidatos con el que se recuerda a esta coalición que no se puede estar a favor del cambio impulsando el TAV. Esta infraestructura es sinónimo de un modelo basado en la destrucción de la tierra, despilfarro de los recursos materiales y energéticos, precarización de las condiciones laborales, agudización de las políticas de recortes y abandono del tren convencional por lo que no se puede estar promoviendo esta infraestructura y apoyando un cambio político, por pequeño que éste sea.

En estas elecciones, ¡Ni un solo voto para el TAV!

¡Desobedece al TAV!

MUGITU! MUGIMENDUA

<http://mugitu.blogspot.com/>

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/ahtren-aurkako-pegatinada-hauteskunde-kanpainan